

Omenaldia

Margaret Thatcherri, Ronald Reagan eta Karol Wojtyła-rekin batera iraultza kontserbatzaileen liderra izan zenari, plaza txiki bat eskaini zioten Madrilen. Hortaz gain ez dakit kale edo plaza gehiago duen munduan barna. Bere jaioterrian bai. Estatua bat, figura-tiboa eta aski errealista.



JIRA
Angel Erro

Hala jakin dugu egunotan zabaldu den notizia bitxi baten harira. Notizia bitxi biren harira, hobe esan. Nik leitu-tako lehenbizikoak kontatzen zuen gazte batek arrautza bat botatzea zuela.

Margaret Thatcherren monumentuari. Berehala zabaldu zen txiste bihurtuta. Antza, sare sozialetan norbaitek galdetu zuen eskandalizatuta ea gaizkilea atxilotua zuten. Beste norbaitek argitu zion ezetz, Thatcherrek bederatzi urte zera-matzala hilda.

Aurreko pasadizoa egiaztatze edo, hortik gutxira zabaldu da egiazki badagoela mutil bat agintari britaniarra zenaren estatuaren ondoan arrautzak saltzen dabilena. Jendeak haiekin nahi duena egiteko. Gainera, badu bere jarrera justifikatzeko argudiaketa tatxagabea, Thatcher bera hunkituko lukeena: ba al dago hari omenaldi egiteko modu hoberik eskaintzaren eta eskariaren legea praktikan jartzea baino?

Oraingoz sarkasmo asmoa du ekintzak. Kapitalismoak erakutsi digu hurrengo urratsa zein izaten den.

Emeritua

Hautsak harrotu ditu Juan Carlos I.a berriro ere Espainiara itzultzeak. Francok hala erabakita, 1975etik 2014ra izan zen Espainiako erregea. Komunikabide askok haren bizitza erudugarria erakusteko ahalgina egin zuten luzaroko, baina zakuak zulo larregi zituen osorik eusteko.

Juan Carlos Borboikoa-rengandik hurbil ibili omen ziren emakumeek haren sekretuak kontatu dituzte publikoki: Afrikara joaten zen babestutako animalia espezieak ehizatzea, eta bere kargu publikoak ematen zizkion

pribilegioak erabili zituen negozio pertsonalak zabalatzeko... Azkenean abdikatu egin zuen. Seguruenetik ez berak hala nahita, baina bai monarkiaren irudiari aurpegia garbitzeko. Hainbat delituen susmagarri egin zuten, eta ikertu ere egin dutela diote. Ez dago haren kontrako ezer, ordea, eta urte pare bat hara joan gabe egon ondoren Espainiara itzuli da. Bisita laburra egin du, baina titularrak betetzeko nahikoa. Hura errege izendatu zuenaren ondorengo ongi-etorria eman diote; beste batzuk kontra agertu dira, eta trantsizioan banatutako pastelaren zati handia jan dutenak isilik gelditu dira. Dena zoragarri eta normal Madrilgo Gorteetan. Monarkia anarkonikoa eta demokratziaren kontrakoa dela onartzeko gogorik eta indarririk gabe. Herriari barre egin dion jendea eredugarritzat erakutsi nahian.



BIRA
Onintza Enbeita

Bilboko gay-hiltzailea: gorroto-deliturik?

Jon-Mirena Landa Gorostiza
Giza Eskubideen eta Botere Publikoen EHUko Unesco Katedraren zuzendaria

Delitu ustezkoaz ari gara: alegia, Bilbon gertatu omen diren homosexualen aurkako delituak ikerketapen daude, prozedura judiziala ireki berria izanik. Hortaz, oraindik dakiguna, norbait atxilotuta egon arren, ez da erabat argia ezta are gutxiago irmo eta oso-osokoa. Aldez aurretik joan dadila, beraz, errugabetasun usteari ere heldu behar diogula, atxilotuari dagokionez.

Garbi dagoena da, ordea, gizon batzuk hilda egon badaudela eta Poliziaren lehenengo informazioan oinarriturik gizarte osoak sen onez interpretatu duela biktimak aukeratzeko modu zehatz baten arabera egitateak gertatu direla. Hau da, egileak, dena delakoak, modu kontzientean plan bat ezarri zuen, eta, pertsona homosexualen zita-plataforma batzuetara jo ondoren, gay batzuekin elkartzan zen eta azken buruan haien hil egin zituen dirua eta baliozko gauzak ostu bezain pronto. Gogora dezagun datu hau, jarduteko modu hau (*modus operandi*): aukeraketa kontzientea, biktima-talde bat (homosexualak) xede zuela.

Nire galdera zera da: hau giza hilketa (edota jabetzaren aurkako delitu) *xinple* bat da, edo gorroto-delitu gisa ere kalifikatu beharra dago? Eta, horrela eginez gero, zergatik bada, eta horrek zer aldatzen du?

Gorroto-delituia Espainiako Estatuan azkenaldian honetan bolo-bolo dabil, denon ahotan. Baina inor gutxi daki benetan zer den, eta are gutxiago nola eta zertarako erabili beharko litzatekeen esparru penalean eragingarriak izan nahi izanez gero. Gorroto-delituia ez da gorrotatzea. Hala balitz, zentzugabeko zigor-handitzea nonahi ikusiko genuke. Delituak egiten direnean, areago delitu larriak izanez gero, egilearen sentimenduen artean gorrotoa ere egoten da maiz. Baina estatu demokratikoetan zuzenbide penalak ez dio begiratzen pentsamendu hutsari, egiten denari baizik: beste hitz batzuetan, pentsamendu hutsak ez du

deliturik egiten (*cogitationis poenam nemo patitur*).

Delituia egiten denean, zeregiten den izan behar da garrantzitsua eta abiapuntua, eta ez egileak zer duen *bihotzean*. Hori presente edukiz gero, lehenengo urratsa eginda dago gorroto-delituia ulertzeko. Izan ere, motibazioa, barneko pentsamendua, noraino pertsona batek homosexualak edota beltzak edo jitoak, esaterako, gorroto dituen, ez da erabakigarria. Zuzenbide penalean ez da *barnea* epaitu behar, baizik eta *kanpoko* munduan egin den kaltea (lesioak, giza-hilketa, sexu eraso...). Hori guztia egin ondoren, zergatik egin den ez da hain garrantzitsua.

Badakit esandakoak bat baino gehiago txundituta utziko duela. Gure gizartean gero eta gehiago zuzenbide penalean abusua egiten baita, zuzenbidea eta moralak, zuzenbidea eta etika nahastuz: horra hor askotan indarkeria politikoan exijitzen dena: «damutu behar», «barkamena eskatu behar»... Eta ez bakarrik indarkeria politikoaren alorrean: orain badirudi delitu bat egin ondoren birgizarteratzerik ez dagoela *barneko* aldaketarik gabe. Baina zuzenbide penalean *kanpoko* errespetua exijitzen da: hau da, norbaitek errespetatzen badu lege penala, nahikoa da, errespetatzeko dituen arazoak (legearen beldurra, esaterako, edo arazo altruistak, zinikoak...) ez zaizkigu interesatzen. Zuzenbidearen bitartez ez da bilatzen gizakiaren perfekzio moralak, gutxieneko demokratikoa baizik.

Aitzitik, legelari askok eta askok, epaile gehienek barne, «motibazio» lehenesten dute gorroto-delituia interpretatzerakoan. Gorrotatzen al zituen homosexualak? Eta horren arabera gorroto-delituia baieztatzen dute, eta zigor gehiago ezarri ere.

Hori, nire iritzi apalean, ez da bidea. Bilboko kasuan ez digu zertan gehiegi axola behar ea egileak gorrotoak *moti-*

batu egin ote zuen egindakoa. Berak hiltzeko plan bat ezarri bazuen, esanguratsua zera da: talde-aukeraketa objektiboak egin zuela. Eta objektiboak esan nahi du berak bazekiela aukeratzeko zituen horiek guztiek talde zaurgarri jakin bat osatzen zutela, eta hala izango zela ere interpretatua egunen batean hori guztia argitara ateraz gero.

Mundu osoan gorroto-delituia (*hate crime*) beste delituen astungarri bat *bestet* ez da. Hiltzen da, lesionatzen da, jabetza txikitzen da, baina hain justu ere talde baten kontrako mezu gisa. Kasu honekin Bilbon, Euskal Herrian eta haratago homosexualak mezu bat berriro ere jaso dute: «Kon-tuz, badira zuek dianan izaten zaituztenak». Mezuak, gainera, ez da berria: beste *tanta* bat da, urte, hamarkada, mendeetako euriaren ondoren. *Diskriminazio historikoa* deitzen diogu euri horri, eta historikoa bezain gaurkoa dugu: izan ere, beldurra, izua, egiazkoa da, sinesgarria, gaur-gaurkoko, historian gertatutakoa egiaztatze-ko oinarri sendoz.

Delituen bitartez gorroto-mezuak modu eragingarrian plazaratzen denean ez da kalte individual hutsa egiten pertsona baten kontra: horrez gain, pertsona hori kide den talde osoari ere eragiten zaio: homosexualak, gure kasuan, bere funtsezko eskubideetan atzera egingo dutela beldurrak jota. Demokratzia batean ezin dugu onartu pertsona bat talde diskriminatua kide izateagatik etengabe *aukeratu* izatea, delitu larriak jasotzeko mehatxuz. Diskriminazio historikoa atzean egonik, erasotua izateko probabilitatea handiagotzen da, eta, horregatik, lege penalak babes berezia aurrera eraman behar du: berdina berdin tratatu behar, baina desberdina dena ere desberdin. Alegia, babesgabatasun handiagoa duena, gehiago babestu behar! Horregatik, gorroto-delituen funtzioa izan da, izan behar da, talde zaurgarri jakin batzuk (eta ez talde guztiak irizpiderik gabe!) bereziki babestea.

Moralakia bazter dezagun. Barneko motibazioaren gaineko ikerketa inkezi-ziozkorik ez dezagun hausputu. Estatuaren esku-hartze intrusiboaren aurrean babes gaitetzen. Zuzenbide penala ez da gure barneko pentsamenduen begiralea! Gorroto mezu objektiboak da galkoa. Eta, nire aburuz, Bilboko kasuan, aukeraketa objektiboan oinarriturik, mezuak zabaldu egin da, gorroto-delituia *prima facie* argia delarik.

Gorroto-delituen funtzioa izan da, izan behar da, talde zaurgarri jakin batzuk (eta ez talde guztiak irizpiderik gabe!) bereziki babestea